

## HERRERAKO FUTBOL ZELAIA BERRITZEAREN INGURUKO KONTROL MOZIOA

Josu Mirena Ruizek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, honako MOZIO hau aurkezten du, Herrerako futbol zelaia berritzea dela-eta, Osoko Bilkuran azter dadin. Mozio hau Lurralde Garapenerako Batzordean maiatzaren 15ean egindako interpelazioaren ondorio da.

### JUSTIFIKAZIOA

Badakigu denok Herrerako futbol zelaiaren egoera ez dela onena. Aurreko Udal Gobernuak diru partida bat jarri zuen berrikuntza proiektua aurrera eramateko. Arazoak arazo, denboraren poderioz, mahai gainean beste aukera bat jarri zen; hau da, futbol zelaia lekuz aldatu eta beste lursail batean eraikitzea, Lau Haizetan zehazki. Oraingo futbol zelaiak irisgarritasun arazoak ditu eta haiek bideratzea ez da erraza; bestalde, Lau Haizetako lursailak beste arazo batzuk ere bazituen.

Gobernu Batzordearen otsaileko bileretako batean, Lau Haizeta parkeko "Merkear modulurako" plan bereziak hasierako onarpena izan zuen, eta plan honek futbol zelaia aurreikusi du. Beraz, gaur egungo futbol zelaia ez da berrituko. Hori dela eta, martxoan Kiroleko zinegotzi ordezkariari galderak luzatu genizkion batzordean. Gure galderei erantzunez, futbol zelaia egiteko behar den lurzorua Udalarena bakarrik ez dela jakin genuen, eta Kutxarekin, beste jabearekin, akordioa itxi gabe dagoela adierazi zitzaigun. Gainera, gaur egungo futbol zelaia, Herrerakoa, nahiz eta jasotako emaitza bat izan, oraindik jabetza ez dago Udalaren izenean.

Enrique Ramos zinegotzi-ordezkaririk, hilabete honetan emandako erantzunean, onartu zuenez, salneurriarengatik ez da itxi Kutxarekiko akordioa, eta jabetzari dagokionez ondare zerbitzuak egin beharreko lana dela adierazi zuen.

Honegatik guztiarengatik, hau da behan sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

EH Bildu talde politikoa  
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - [www.donostia.eus](http://www.donostia.eus) -  
20003 Donostia

## KONTROL MOZIOA

- 1- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio, Udalaren interesak babestuz, Kutzarekin akordioa itxi dezala, lurzorua Udalarena izan dadin.
- 2- Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio Herrerako futbol zelaia kokatzen den lurzoruaren jabetza Udalaren izenean jar dezala.

Donostia, 2017ko maiatzaren 19an

Josu Mirena Ruiz Martin

**EH Bildu udal taldeko zinegotzia**